

ROBOT-DENDA IPUINAREKIN EGITEKO JARDUERAK

Jarduera honen bidez lant ditzakegun edukia

Hizkuntzak: komunikazioa eta adierazpena: 1., 3. eta 4. blokeak

Norberaren ezagutza eta autonomia pertsonala: 2. blokea

Inguruaren ezagutza: 3. blokea

IRAKURKETA-FITXA: ROBOT-DENDA

Beharke dugun materiala

Robot-denda ipuina ([esteka](#)).

Garapena

- Irakurri ipuina, irudiak dituen posterraz lagunduta.
- Ipuina irakurri ondoren, egiaztatu denek ondo ulertu dutela edukia. Inork zalantzarik badu, lagundu eta bere zalantzak argitu.
- Denen artean hausnartu, honelako galderak eginez:
 - Nolakoak ziren Robi egiteko erabili zituzten piezak?
 - Zer egiten daki Robik? Zer da Robiri gehien gustatzen zaiona?
 - Zergatik ez dute Robi dendako erakusleihoan jartzen?
 - Zergatik uste du Robik berak ere erakusleihoan egoteko eskubidea duela?
 - Bidezkoa iruditzen al zaizue Robiri erakusleihoan egoteko aukera ez ematea?
 - Zer bururatu zaio Robiri berak ere beste robotek bezalako aukera izatea merezi duela erakusteko?

ROBOT-DENDA

Kaixo! Nire izena Robi da. Dendako robotik ospetsuena bihurtu nintzenekoa kontatuko dizuet.

Mekanikariak, aspertuta zegoen arratsalde batean, robot batzuk muntatzen ibili ondoren sobera gelditu zitzaizkion piezak hartu, eta beste robot bat egin zuen: ni neu, hain zuzen.

Pieza guztiak ezberdinak ziren, eta hauxe izan zen emaitza...

Hau naiz ni!

Nire piezak ez dira perfektuak, baina denak ondo dabilta eta mila gauza egin ditzaket! Gehien gustatzen zaidana istorioak kontatzea eta dantzatzea da.

Biltegian, mekanikariek musika jarrita izaten dutenez beti, dantzan ematen dut egun osoa.

Dendako erakusleihoa aldatu egiten dute hilero, eta robot guztiok nahi izaten dugu erakusleihoan egon. Baina ni ez ninduten inoiz jartzen. Adabakiz eginda nagoela esaten zidaten, eta inork ez duela horrelako robotik erosi nahi.

Baina hori ez da egia. Nik besteen aukera berberak nahi nituen.

Horregatik, ideia bat bururatu zitzaidan.

Lehenik eta behin, dendara eramaten dituzten kaxa batean gorde nintzen. Han, zain egon nintzen, denbora luzez. Dena isil-isilik zegoenean, atera egin nintzen.

Erakusleihora joan nintzen. Gainerako robotak harrituta geratu ziren han ikusi nindutenean!

Esan nien denok berdinak garela eta denok aukera berberak merezi ditugula. Eta segur aski ume askori ni bezalako robotak gustatzen zaizkiela, pixka bat desberdinak direnak.

Txorakeria iruditu zitzaien nik esandakoa, baina, azkenean, lekutxo bat egin zidaten erakusleihoaren bazter batean. Ni oso pozik nengoen. Plan bat neukan hurrengo egunerako.

Goizeko hamarretan, dendako ateak zabaltu zituzten. Orduan, «bat, bi eta hiru» esan, eta programatuta neukan musika jarri nuen martxan.

Dantzatzen hasi nintzen eta, handik gutxira, jendetza bildu zen erakusleihoaren aurrean, nola mugitzen nintzen ikusteko.

Dendariak lanpetuta zebiltzan apalak txukuntzen, eta ez ziren ohartu ere egin. Baina, bat-batean, erosle asko sartu ziren denean, robot dantzariak zenbat balio zuen galdezka.

«Robot dantzariak zenbat balio duen? Guk ez daukagu dantza egiten duen robotik», esaten zuten. Orduan, erakusleihoan ikusi zutena kontatu zieten, eta aho-zabalik geratu ziren dendariak.

Orduantxe konturatu ziren oker jokatu zutela nirekin.



Bazterrean utzi ninduten besteak bezalakoa ez nintzelako, baina jende askok erosi nahi ninduen!
Egun hartatik aurrera, tailerrean sobera gelditutako pieza guztiak robotak egiteko erabili zituzten.
Orain, dendan gehien saltzen dena robot dantzaria da!
Baina garrantzitsuena hau da:
... orduantxe ikasi genuela denok berdinak garela eta denok aukera berberak izan behar ditugula.

ERAIKI DEZAGUN GURE ROBI

Beharko dugun materiala

Material birziklagarria: kartoi zatiak, kartulinak, plastikozko tapoiak, eta abar.

Margoak.

Garapena

- Material birziklagarria erabiliz (kartoia, kartoi mehea...), robot bat egingo dugu denen artean. Haur bakoitzak kartoi zati bat margotuko eta apainduko du; gero, zati guztiak elkartu, eta gure Robi egingo dugu.
- Denen artean izen bat aukeratuko dugu robotarentzat, eta gelan ondo ikusten den leku batean jarriko dugu robota.

Hausnartu:

- Denon artean egin dugu gure robota; gutako bakoitzak ekarpen txiki bat egin du. Horregatik, berezia da gure robota.
 - Pozik aritu al zarete robota denen artean egiten? Zergatik?
 - Zer esaten zuten ipuinean Robiri buruz, sobera gelditutako piezekin egin zegoelako?
- Gure robota egiteko hainbeste lan egin ondoren...
 - Zer irudituko litzaizueke esango baligute gure robota bestea baino okerragoa dela, ezberdina delako?
 - Ezberdina izateak ez du ezer txarrik. Zerbait elkarrekin egiten dugunean, emaitza hobea izaten da, gutako bakoitzak bere ekarpena egiten duelako.
- Denen artean landu dugu gure sormena: errazagoa da taldean gaudenean ideia bikainak bururatzea, bakarka aritu behar dugunean baino.
- Material birziklagarria erabiliz egin dugu gure robota. Egin gogoeta birziklatzeak ingurumena zaintzeari begira duen garrantziaz, eta azpimarratu zer esan nahi duen objektu horiei bigarren aukera bat emateak, ipuinean Robi egiteko erabili zituzten piezen kasuan bezala.

DANTZATU NAHI?

Beharko dugun materiala

Musika.

Hurrengo esteketan, haurren koreografia batzuk aurkituko dituzue, jarduera egiteko lagungarriak.

[1. Esteka](#) [2. Esteka](#)

Garapena

- Egunero-egunero, tartetxo bat eskaini koreografiari. Motibatu eta lagundu; zailtasun handienak dauzkaten ikasleei, bereziki.
- Prozesu osoan zehar, nabarmendu dantza ikasteko egiten ari diren ahalegina, eta gogorarazi taldeko lana dela egiten ari direna.
- Data bat finkatu, egindako lana erakusteko, eta gogorarazi zenbat egun geratzen zaizkizuen egun hori iristeko. Nahi izanez gero, ikastetxeko beste gela batzuen aurrean dantza dezakete koreografia, edo esan bideoz grabatuko dituzuela, gero haien senideek eta lagunek ikusi ahal izateko.
- Ekitaldiaren bezperan egin behar duzue jarduera hau, azken entseguan:
 - Esan haurrei biharamunean mutilek bakarrik dantzatu ahal izango dutela koreografia, neskek ezin izango dutela dantzatu. Galdetu neskei nola sentitzen diren; galdetu mutilei zer iruditzen zaien, bidezkoa iruditzen zaien.
 - Bigarren txanda batean, esan, adibidez, betaurrekoak dauzkaten mutilek bakarrik egin ahal izango dutela dantza, besteek ezetz. Galdetu baztertuta geratu direnei zer iruditzen zaien eta nola sentitzen diren.
- Bukatzeko, denen artean hausnarketa egin, adibidez horrelako galderak eginez:
 - Nola sentitu zarete neskak lehenengo aldian, esan dizuetenean ezin izango zenutela dantza egin, koreografia mutilek bezain ondo jakin arren?
 - Aipatu neskak baztertzen dituzteneko adibideren bat, ikasleek ulertzeko modukoa. Adibidez: herrialde askotan, jendeak ez du etxean urik, eta egunero-egunero neskek joan behar izaten dute iturrira ur bila, ez mutilek. Ondorioz, neskek ezin izaten dute eskolara joan. Horrez gain, etxeko lan guztiak neskek egin behar izaten dituzte, eta anaia-arreba txikiak zaindu ere bai, mutilak eskolan dauden bitartean. Hori bidezkoa iruditzen al zaizue?
 - Bigarren aldian, nola sentitu zarete dantza egingo ez zenutela esan dizuetenean?
 - Nola sentitzen zarete behin ere dantzatzerik izan ez duzenok?

- Bidezkoa iruditzen al zaizue koreografia ikasteko ahalegina besteek bezalaxe egin ondoren dantza egin gabe geratu behar izatea?
- Hausnarketa bukatzeko, gogora ezazue Robiri gauza bera gertatu zitzaiola. Robota zen bera ere, besteak bezala. Oso atsegina zen eta gauza asko egiten zekien, baina itxura ezberdinekoa izate soilagatik ez zizkioten besteen aukera berak ematen.
- Jarduera amaitzeko, egizue dantza denek batera, erakusteko denek ikasi duzuela dantza eta denek aukera berberak izan behar dituzuela egindako lana erakusteko eta egindako ahalegina baloratzeko.

Robot bat egiteko iradokizunak

